# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2020ko ekainaren 9a | 66. ZK.

**A U R K I B I D E A**

B SAILA:
**Foru lege proposamenak:**
—Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa eskualdatzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
—Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ekarriko duen aurrezkiari eta diru horren zertarakoari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (9. or.).
—Galdera, Laneko Ikuskaritzak landa-eremuan sustatutako ikuskapen-kanpainari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
—Galdera, deseskalatze-prozesuko 3. fasearen kudeaketari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (10. or.).
—Galdera, I+G suspertzeko talka planari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
—Galdera, COVID-19ak eragindako osasun larrialdia dela-eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egindako akordioei buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren baliabide ekonomiko edo finantzarioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
—Galdera, ibilgailu arinentzako bidesariak zabaltzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
—Galdera, konfinamenduaren ostean 0tik 3 urtera bitarteko haur eskola pribatuak irekitzeari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (13. or.).
—Galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariak Nafarroan ordezkaritzarik ez duten alderdi politikoekin sinatutako alde biko akordioei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).

—Galdera, langile autonomoek dauzkaten diru-sarrerak direla-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak egiten duen irakurketari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (14. or.).
—Galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Berriaren erreformaren aurka aurkeztutako errekurtsoa dela-eta Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (15. or.).
—Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ekarriko duen aurrezkiari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).
—Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen murrizketa dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten dituen proposamenei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (16. or.).
—Galdera, jakiteko ea zertan diren Hitzarmena Negoziatzeko Batzordean izandako elkarrizketak, Sánchez lehendakariak iragarritakoaren arabera itzuli beharko ez den funtsaren eta, halaber, Nafarroak zorra jaulkitzearen inguruan. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (16. or.).
—Galdera, "Biodibertsitateari buruzko 2030erako Estrategiari" eta "Baserritik Mahaira Estrategiari" buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (17. or.).
—Galdera, alarma egoeran eta PFEZaren aitorpenaren kanpainan zehar finantza-erakundeek Nafarroan izandako jokabideari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (17. or.).
—Galdera, jakiteko ea zer esparrutan pilatzen diren nagusiki gure erkidegoan arrazakeria dela-eta jasotako salaketak. Mikel Buil García jaunak egin du (18. or.).
—Galdera, Nafarroako industria babesteko eta sendotzeko Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (18. or.).
—Galdera, jakiteko ea zer irizpide darabilen Nafarroako Gobernuak autonomia erkidegoentzat 16.000 milioi euroko funtsen esleipenari dagokionez. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (19. or.).
—Galdera, Nafarroa hirugarren fasean sartzeari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (19. or.).

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (20. or.).

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikuluak aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru lege proposamena aurkeztu du (10-20/PRO-00007).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

I

Azken urteotan hainbat dira, deslokalizazioaren fenomenoaren eraginez, gure komunitatea utzi eta atzerrian beren lantokiak kokatu dituzten enpresak. Etekinak areagotzeko helburuarekin eskulan eta kostu gastuak murriztuz, urte askoz gure lurraldean kokatu diren hainbat enpresak beren produkzio osoa edo zati handi bat kanpora bideratu dute.

COVID-19aren krisiarekin, enpresa batzuek beren interes ekonomikoengatik - Nissan multinazionalak Bartzelonan iragarri duen bezala - deslokalizazio berriak planteatzeko arriskua jarri da abian.

Deslokalizazio gisa ezagutzen den jardueraren bidez, zerbitzuen eta bitarteko ondasunen enpresek, besteak beste, haiekin mendekotasun-erlaziorik ez duten atzerriko hornitzaileei erosketak egiten dizkiete, eta atzerrian finkatutako sozietate afiliatuei transferentziak bideratzen dizkiete. Kasu gehienetan estatu batetik bestera egiten dira, etanúm. 55ondasun edo zerbitzuok enpresak berak edo kanpoko zerbitzu-emaileek hornitu ahal dituzte. Kasu gehienetan garapen urria edo gurea baino garapen txikiagoa duten herrialdeak izaten dira helmuga.

Estatu bateko enpresa batetik beste estatu batetako enpresa batera jarduerak eta lanpostuak lekualdatzea egiteko modu bat baino gehiago daude: alde batetik, akziodunen artean burutzen da, alegia, talde bereko enpresen artean. Beste alde batetik, kontratu bidez burutu ahal da, enpresa nagusi baten eta lehenago jatorrizko herrialdean ekoizten ziren ondasun edo zerbitzu inportatuak hornitzen dituen azpi-kontratistaren artean.

Gero eta ohikoagoa da erabaki eta botere guneak kanpoan kokatzetik hastea. Hainbat interes direla tarteko (ekonomikoak, fiskalak…) botere eta erabaki guneak kanpoan kokatzea izaten da deslokalizazio prozesuen lehen urratsa. Denboran luzatzen diren prozesuak izan ohi dira maiz.

Garapen bidean dauden herrialdeetan eskulana gero eta kualifikatuagoa eta ugariagoa izateak eta ekonomia zein komunikazioen mundializazioak areagotu egin dute deslokalizazioaren bideari ekin dioten enpresen kopurua.

Bereziki industrian ematen den egoera hau ekonomiaren mundializazio eta globalizazio prozesuetan txertatuta dago. Prozesu horiek enpresa transnazionalei eragiten diete batik bat eta enpre-

sa transnazional horietako gehienak halako ezaugarriak dituzten estatuak bilatu ohi dituzte: egitura eta babes sozial mugatua, eremu sozialean gutxi garatutako lan legeriak, soldata baxuagoak eta ingurumenren kontserbazioari dagozkion lege arau malguak.

Gero eta nabarmenagoa den fenomeno honek nafar sare industrialaren baitan ondorio oso larriak eragiten dituen egoera sortzen du. Alde batetik, deslokalizazio fenomenoaren bidez zuzenean galtzen diren enpleguak daude. Bestetik, deslokalizazioaren edo bere mehatxuaren eraginez lan baldintzetan ematen diren atzera urratsak. Soldatak murritzagoak izatea eta lan baldintzek txarrera egitea dira enpresek deslokalizazioaren mehatxua erabiliz ematen diren egoerak. Honen ondorioz, soldata bat izanik ere pobreziatik atera ezin diren pertsonen kopurua areagotu egin da.

Egoera honek gure ekonomia sarean sortzen dituen ondorioei aurre egiteko bitartekoak jartzera behartuta dago Nafar Gobernua. Era berean ezinbestekoa da gure ekonomiaren sustapeneko politika publiko egokiak diseinatu eta garatzea, Nafarroako ingurune sozioekonomikoaren bilakaerari lotutako politikak, aberastasuna sortu, berau banatu eta bertako pertsonen bizi kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

Politika horien baitan kokatzen dira enpresei bideratutako laguntza publikoak. Konpetentzian, gastuen murrizketan eta ondasunen metaketan oinarritutako merkatuaren aurrean, beste balio batzuetan eraiki behar da enpresak gizartearekin zein administrazioarekin duen harremana. I+G+B zutabe izango duen eredu berrian oinarritutako ekonomia industriala bultzatu behar dute nafar instituzioek, enpresa txiki eta ertainei irtenbideak, aukerak eta laguntzak eskainiz eta langileen parte-hartzearekin zein lan-kalitatearekin osatuko dena. Enplegu egonkorra eta birbanatu daitekeen aberastasuna sortu behar dira herri honen etorkizuna bermatzeko. Bide hori izango da lehiakortasunera eta kalitatezko lan- zein bizi-baldintzetara eramango gaituena

Gure ekonomiaren baitan enpresek beste hainbat eragile sozial, ekonomiko eta sindikalekin batera betetzen duten eginkizuna ezinbestekoa dela aitorturik, instituzioetatik bide hori garatzen laguntza emango zaie. Aldiz, gastuak murrizteko helburu soilarekin eta bideragarritasun ekonomikoari lotutako arrazoien bidez justifikatu gabe beren jarduerak bertan behera utzi eta kanpora eramateko bidea hartzen dutenean, zigor neurriak arautzea funtsezkoa da. Deslokalizazio jarrera horiek lanpostu askoren galera eragin dezakete eta arazo larriak sortu gure herriko sare ekonomiko, produktibo eta industrialean.

Enpresen babeserako laguntza publikoak (fiskalak barne) bideratzen direnean, neurri horiei buruzko arautegiak lagundutako jarduera burutuko da, emandako laguntzaren xedea bete egingo da eta jarduera horrek Nafarroaren garapenerako ekarpen eraginkorra egingo duela bermatuko da. Laguntza publikoek kalitatezko lanpostu eta lan baldintzak sortzen lagundu behar dute eta ez dute biderik eman behar jarduera ekonomikoak deslokalizatzeko.

Europan zehar zabaldutako arazoa izanik, Europako erakundeek neurri juridikoak hartu dituzte, Europako Erkidegoak finantzatzen dituen enpresek ez ditzaten euren jarduerak deslokalizatu. Mahai gaineratu diren neurri horien xedea Europar Batasunak enpresei emandako laguntzak berreskuratzea da, laguntza jaso eta zortzi urte igaro aurretik enpresak bere jarduerak deslokalizatzen baldin baditu. Era berean, Europako Parlamentuak eskatu du enpresa horiek Egitura Funtsetatik edo estatu-laguntzetatik kanpo gera daitezela deslokalizazioa egiten dutenetik zazpi urte igaro arte.

Europar Batasunak bezala, Nafarroako Gobernuak ere beharrezkotzat jotzen du enpresei arauak ezartzea, eta, foru lege proposamen honetan, baliabide publikoak jaso ondoren deslokalizazioaren bideari ekiten dioten enpresak (produkzio osoa edo zatirik handiena kanpora eramanaz) azkeneko hamar urteetan jasotako laguntza guztiak itzultzera behartuta geratzen dira.

Deslokalizazioaren fenomenoari aurre egiteko neurriak hartu izan dira aurretik ere, Nafarroako sare industriala babestu eta indartzeko baliagarriak izan direnak eta ekimen desberdin gehiagoren bidez osatzen joan direnak. Foru lege honen bidez beste urrats bat eman nahi da norabide horretan.

## II

Bi kapitulutan banatutako zortzi artikulu eta bi xedapen ditu foru lege honek. Lehen kapituluan foru legearen xedea zehazten da, nafar sektore publikotik laguntzak jasotzen dituzten enpresek balizko deslokalizazioen aurrean izan beharreko arauak zehaztuz. Hurrengo bi artikuluetan foru legearen aplikazio eremu subjektibo eta objektiboak zehazten dira. Laugarren artikuluan enpresak deslokalizatutzat jotzeko beharrezkoak diren baldintzak zehazten dira. Bigarren kapituluak laguntza publikoen aurrean Nafarroako enpresek hartu beharreko konpromisoak zehazten ditu. Izan ere, laguntza publikoak jasoko dituzten enpresek deslokalizaziorik ez burutzeko konpromisoa hartu beharko dute. Hurrengo atalean Nafarroako Gobernuak deslokalizazio kasuen deklarazioa

burutzeko prozedura zehazten da. Zazpigarren atalean, dirulaguntza publikoak jaso ondoren deslokalizazioa burutu duen enpresak laguntza hauek itzultzeko duen betebeharra arautzen da. Azken artikuluan, deslokalizazio prozesuen inguruko ezagutzan sakontzeko batzorde baten eraketa arautzen da.

Xedapenetan, Nafarroako Gobernuari foru legea interpretatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibideak bideratzeko ahalmena ematen zaio eta foru lege honen aplikaziorako beharrezkoak diren diru zuzkidurak aurrekontuan sartzeko betebeharra arautzen da. Azkenik, foru legea indarrean sartzeko epe eta baldintzak zehazten dira.

## I KAPITULUA
## Xedapen orokorrak

**1. artikulua.-** Xedea.

1. Foru lege honen xedea Nafarroako Administrazio Orokorretik eta bertako organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio eta mankomunitateetatik laguntzak jasotzen dituzten enpresek balizko deslokalizazio prozesuen aurrean izan beharreko betebehar eta mugak zehaztea da.

2. Lege honen bidez, deslokalizazio prozesuei aurre eginaz, bermatu nahi da enpresek Nafarroako sektore publikotik jasotako diru-laguntzak Nafarroaren garapenari ekarpen ekonomiko eta soziala egiteko izan daitezela.

**2. artikulua.-** Aplikazio eremu subjektiboa.

Foru lege hau enpresaren egoitza zein lantokia Nafarroan izan eta Nafarroako Gobernuaren laguntzak jaso dituzten enpresei aplikatuko zaie, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan eta moduan. Foru lege hau enpresaren arloan diharduten fundazio eta elkarteei ere aplikatuko zaie.

**3. artikulua.-** Aplikazio eremu objektiboa.

Foru lege honen ondorioetarako Nafarroako instituzioetatik jasotako laguntzak dira Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Orokorraren Foru Legearen baitan bideratzen diren dirulaguntzaknúm. 55eta organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio eta mankomunitateetatik, bakoitzaren aurrekontuetatik, ematen diren dirulaguntzak.

**4. artikulua.-** Enpresen deslokalizazioa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, enpresa bat deslokalizatu egin dela ulertuko da, bi baldintza hauek batera gertatuz gero:

a) Enpresak Nafarroan duen jarduera bertan behera uztea edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean, edo hori gertatu aurreko nahiz ondorengo hiru urteetan, Nafarroan jarduera bertan behera utzi duen erakundeak berak jarduera hori Nafarroatik kanpoko beste leku batean garatzea, edo beste erakunde batek garatzea, baldin eta harekin Merkataritzaren Kodeko 42. Artikuluan aipatzen diren harremanak baditu.

c) Bigarren jarduera bertan behera geratu dela ulertuko da, bai erakundea desegiten denean eta baita, desegin ez arren, Nafarroan dituen produkzio instalazio guztiak edo horietariko batzuk ixten dituenean ere.

2. Jarduera nabarmen murriztu dela ulertuko da, baldin eta, erakundeak Nafarroan dituen lanpostuen murrizketaren ondorioz, murrizketaren aurretik izandako langileen kopurua erdira baino gutxiagora jaisten bada. Hori dela eta, artikulu honen lehen atalean aipatutako baldintzak eman aurreko bi urteetan erakundeak Nafarroako lantokietan izandako langileen bataz-besteko kopurua hartuko da kontuan.

3. Enpresak Nafarroan egin izan duen jarduera lurralde horretatik kanpoko leku batean garatzen ari dela ulertuko da, bai kanpoko leku horretan jarduera abian jartzen bada eta baita kanpoko leku horretan lehendik zegoen enpresa-jarduera hazten bada ere, Nafarroan bertan behera utzi den edo murriztu den heinean.

4. Salbuespenez, behar bezala egiaztatutako kasuetan, enpresa-deslokalizaziorik ez dagoela ulertu ahal izango da, baldin eta baldintza horietan egokitzen den enpresak, zuzenean edo berarekin Merkataritzaren Kodeko 42. Artikuluan aipatutako harremanak dituen beste erakunde baten bitartez, Nafarroako lurralde eremuan enpresa-jarduera berriak abian jartzen baditu, eta batean galdu dituen adina lanpostu edo gehiago Nafarroako beste eremu batean sortzen baditu.

## II KAPITULUA
## Laguntza publikoen aurrean enpresen jabeen ardurak

**5. artikulua.-** Enpresaren jabeen konpromisoa.

Dirulaguntzak emateko oinarri-arauetan, Nafarroako Gobernuak enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa jasoko du gutxieneko edukiaren barruan, eta beste horrenbeste egingo da organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio eta mankomunitateen laguntzak emateko eragiketak formalizatzen dituzten negozio juridikoetan.

**6. artikulua.-** Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa.

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Gobernuaren erabaki baten bidez egingo da, laguntza eman duen sailaren edo erakundearen proposamenez.

2. Deslokalizazio Deklarazioa foru lege honetako 2. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko bost urteko epean abiarazi ahalko da.

3.núm. 55Enpresa baten deslokalizazioaren deklarazioa burutzerakoan, Nafarroako Gobernuko departamentu batek baino gehiagok edo organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio eta mankomunitate batek baino gehiagok esku hartzen dutenean, deklaraziorako prozedura bakarra egingo da, araudi bidez zehazten den moduan.

4. Prozeduraren hasieran, laguntza eman duen departamentuko edo erakundeko organo eskudunak txostena egingo du, foru lege honetako 2. artikuluan azaldutako baldintzak gertatu direla azalduz.

Lehen instantzian burututako txostena interesatuari jakinaraziko zaio. Interesatuak hamabost eguneko epea izango du txostenak dioenaren aurrean bere arrazoiak adierazi eta bere eskubideen defentsa egiteko.

5. Interesatuaren ekarpenak jasotzeko epea amaitzen denean, hala badagokio, enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko proposamena aurkeztuko zaio Nafarroako Gobernuari.

6. Prozedurari amaiera emanaz, eta jasotako txosten eta informazioa aztertu ondoren, Nafarroako Gobernuak bi aukera izango ditu:

a) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartzea.

b) Enpresaren deslokalizazio deklarazioa bertan behera uztea.

Bi kasuetan interesatuari ebazpenaren jakinarazpena egingo zaio.

7. Nafarroako Gobernuaren azken ebazpenean enpresaren deslokalizazioa zein egunetan gertatu den zehaztuko da. Data hori foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako kontuan hartuko da.

**7. artikulua.-** Jasotako laguntza itzultzea.

1. Enpresaren deslokalizazioa deklaratuz gero, enpresak itzuli egin beharko ditu aurreko hamar urteetan jasotako dirulaguntza kopuruak, kopuru bakoitza jaso zuenetik deklarazioaren egunera arte sortutako berandutza-korrituekin batera. Deklarazio horren ondorioz, eta berau egiten den egunetik aurrera, deslokalizazioa deklaratu zaion enpresak eta haren bazkideek ezin izango dute Nafarroako sektore publikotik laguntzarik jaso hurrengo hamar urteotan.

2. Dirulaguntzak itzuli behar direnean legez zehaztutako dirulaguntzen araubide orokorrak xedatutakoa aplikatuko da. Gainerako laguntzak itzuli behar direnean kasuan kasuko harremanari edo negozio juridikoari buruzko arauak beteko dira.

3. Nafarroako instituzioek ematen dituzten dirulaguntzaz besteko laguntzei dagokienez, Nafarroako Gobernuak laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko prozedura onetsiko du. Oro har, merkatuko balioaren eta dena delako negozio juridikoan hitzartutako balioaren arteko aldea izango da.

**8. artikulua.-** Enpresa-deslokalizazioari buruzko ezagutza.

Nafarroako Gobernuak, enpresak deslokalizatzeko prozesuei buruzko ezagutza hobetzearren, ikerketa lerro egonkorra antolatuko du eta gainerako instituzioekin elkarlanean arituko da: bertan, globalizazioak tokiko eta eskualdeetako enpresasarean duen eraginari eta Europako zein Nafarroako enpresen deslokalizazio prozesuei buruzko ezagutza teorikoan eta praktikoan egin diren aurrerapenak eta egungo egoera aztertuko dira.

**Xedapen gehigarri bakarra.**

Foru lege hau garatu eta gauzatzeko beharrezko diren erregelamendu-mailako xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Gobernuari eta, hori burutzeko, foru lege hau argitaratzen denetik urtebeteko epea izango du.

**Xedapen iragankor bakarra.** Foru lege honek indarra hartu aurretik emandako laguntzen araubide iragankorra.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie hura indarrean jarri aurretik emandako laguntza publikoei, baldin eta ez badira hamar urte igaro dirulaguntza eman dela jakinarazi edo argitaratu zenetik.

**Azken xedapena.**

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik sartuko da indarrean.

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa eskualdatzeari buruzkoa.

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa eskualdatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballerok, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Maiatzaren 29an, Espainiako Gobernuak bizitzeko gutxieneko diru-sarrera –muturreko pobreziari aurre egitea bilatzen duen eskubide sozial bat– onetsi zuen Ministroen Kontseilu berezi batean.

Ministroen Konseiluaren bilkura hartan orobat onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea horren kudeaketa.

Nafarroan urteak dira errenta-bermeen sistema bat ezarri zela, zeina 15/206 Foru Legea onetsi zenean sartu baitzen indarrean; haren bidez, gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautu ziren.

Arau horrek Nafarroa Estatuan aitzindari bihurtu zuen, gutxieneko errenten programa publikoak ezartzeari dagokionez. Onetsitako errenta 600 eurotik (pertsona indibidualentzat) 1.222 eurora (sei kide edo gehiagoko familientzat) bitartekoa da.

Errenta bermatuaren aplikazioaren emaitzak apartak izan dira pobreziaren aurkako borrokan.

Errenta bermatua ezarrita zegoen lehendabiziko urtean, Nafarroan % 44,5 jaitsi zen pobrezia larriaren tasa, % 4,7tik % 2,6ra jaitsi baitzen; horrek esan nahi du 13.448 pertsonak utzi ziotela egoera horretan egoteari. Bitartean, pobrezia larriaren tasa % 9,2koa zen Espainia osoan.

2018an 36.303 pertsonak jaso zuten errenta bermatua, eta horietako 13.233 neska-mutikoak ziren; hau da, % 36,46. Halaber, lan egiteko adina zeukaten jasotzaileen % 30ek lan-kontraturen bat eduki zuten urtean zehar.

Nafarroako Gobernuaren estimazioen arabera, 2020an 15.000 familia-unitate inguruk jasoko dute errenta bermatua, eta COVID-19ak ekarri duen egoera ikusita, pentsatzekoa da gutxienez ere beste 1.000 familiak jaso beharko dutela errenta bermatua.

Hortaz, Nafarroak orain dela 3 urte baino gehiago indartu zuen, nabarmen indartu ere, pobrezia larriaren aurkako borroka, errenta bermatua onestean.

Pedro Sánchez Espainiako Gobernuko lehendakariak berak, maiatzaren 31an emandako prentsaurreko batean, eredu gisa aurkeztu zuen Nafarroa, errenta-bermeen programen kudeaketari dagokionez; adierazi zuenez, Nafarroa "erreferentzia izan da" eta "modu berritzaile batez" garatu ditu bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gisa bereko politikak.

Hortaz, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera Nafarroari eskualdatu izanak eta Espainiako Gobernuko lehendakariaren adierazpenek blindatze juridi-

ko eta aitortza politiko oso bat izan behar dute Nafarroako errenta bermatuari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroari bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskualdatu izanari buruz eta zenbatekoa uste du izanen dela Espainiako Gobernuak horretarako eginen duen ekarpen ekonomikoa?

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ekarriko duen aurrezkiari eta diru horren zertarakoari buruzkoa.

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ekarriko duen aurrezkiari eta diru horren zertarakoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak orain dela gutxi iragarri zuen bizitzeko gutxieneko diru-sarrera onetsiko zuela; hori dela-eta, Eskubide Sozialetako kontseilari Carmen Maeztu andreak iragarri zuen horrek 50 milioi euroko aurrezkia ekar ziezaiokeela Nafarroako Gobernuari.

Kontuan izanda behin-behineko estimazio bat zela, uste dugu beharrezkoa dela egungo datuak eta urteko aurreikuspen xehakatuagoak aztertu behar direla ahalik eta estimazio zuzenena egin ahal izateko. Horregatik guztiagatik, eta egoerari buruzko analisi sakonago horretan oinarrituta, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

• Bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak zenbateko aurrezkia ekarriko dio Nafarroako Gobernuari eta zer eginen da diru horrekin?

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

# Galdera, Laneko Ikuskaritzak landa-eremuan sustatutako ikuskapen-kanpainari buruzkoa.

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, laneko ikuskaritzak landa-eremuan sustatutako ikuskapen-kanpainari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Azken asteotan hedabideen bidez jakin dugu Espainiako landa-eremuan irregulartasun larriko egoerak detektatu direla, balizko iruzurrak eta irregulartasunak detektatze eta amaiarazte aldera Laneko Ikuskaritzak maiatzean eta ekainean egindako ikuskapenen kanpaina berezi baten ondorioz.

Ikuskapenen kanpaina horrek kritika sutsuak eragin ditu gure erkidegoko lehen sektoreko ordezkarien sektore batean, zeinak Laneko ministro Yolanda Díazen dimisioa eskatzeraino iritsi baitira. Gure ustez, dimisio-eskaera hori harrigarria eta ulergaitza da, bere lege nahiz lan betebeharrak modu arduratsuan betetzen dituen batek egiten badu.

Osasun krisiaren unerik latzenetan, nekazariek eta abeltzainek funtsezkoa eta ezinbestekoa zen lana egin dute herritar guztien esku lehen sektoreko produktuak jartzen zirela bermatzeko; hortaz, administrazioaren kezka nagusietako bat izan behar du horien lan eskubideak zorrotz errespetatzen direla bermatzeak.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du Laneko Ikuskaritzak gure herriko landa-eremuan sustatutako ikuskapenen kanpaina hori dela-eta?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

# Galdera, deseskalatze-prozesuko 3. fasearen kudeaketari buruzkoa.

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, deseskalatze-prozesuko 3. fasearen kudeaketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean,honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 11ko Osoko Bilkuran, osteguna, ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak nola planteatzen du deseskalatze-prozesuko 3. fasearen kudeaketa?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4a

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

# Galdera, COVID-19ak eragindako osasun larrialdia dela-eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egindako akordioei buruzkoa.

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19ak eragindako osasun larrialdia dela-eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egindako akordioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean,honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 11ko Osoko Bilkuran, osteguna, ahoz erantzuteko.

Zer balorazio egiten duzu COVID-19ak eragindako osasun larrialdia dela-eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin egindako akordioei buruz?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

# Galdera, I+G suspertzeko talka planari buruzkoa.

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, I+G suspertzeko talka planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean,honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Oraintsu aurkeztu den I+G suspertzeko talka plana ikusita, honako hau jakin nahi dut:

Zer neurri jasotzen ditu, zein da horietako bakoitzak aurrekontuan izanen duen eragina eta zer dela-eta lehenetsi dira horiek I+G suspertzeko talka planean?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

# Galdera, Nafarroako Gobernuaren baliabide ekonomiko edo finantzarioei buruzkoa.

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren baliabide ekonomiko edo finantzarioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Ekitaldi honetan, ustez, diru-sarrerak jaitsiko dira, eta hainbat gastu helduko dira Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planean jasotako neurriak ezartzeko, eta litekeena da horri aurre egiteko zor publikoa edo bankuko maileguak kontratatu behar izatea. Zer baliabide ekonomiko edo finantzariorekin egin nahi dio horri aurre Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## Galdera, ibilgailu arinentzako bidesariak zabaltzeari buruzkoa.

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, ibilgailu arinentzako bidesariak zabaltzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak baztertu egiten al du gure errepideetan ibilgailu arinentzako bidesariak zabaltzea?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## Galdera, konfinamenduaren ostean 0tik 3 urtera bitarteko haur eskola pribatuak irekitzeari buruzkoa.

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, konfinamendu-aldiaren ondoren 0tik 3 urtera bitarteko haur eskolak irekitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak uko egin dio 0tik 3 urtera bitarteko haur eskola pribatuak irekitzea ahalbidetzeko inolako neurririk hartzeari, nahiz eta horrek ahalbidetuko lukeen milaka familiaren kontziliazioa, beren lanetara itzuli behar izan dutenak alarma egoerak ezarritako konfinamenduaren ostean lan-jarduera berriz abiarazi denean. Zergatik?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## Galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariak Nafarroan ordezkaritzarik ez duten alderdi politikoekin sinatutako alde biko akordioei buruzkoa.

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariak Nafarroan ordezkaritzarik ez duten alderdi politikoekin sinatutako alde biko akordioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kexarik helarazi al duzu edo helaraziko al duzu Espainiako Gobernuko lehendakariak Nafarroan ordezkaritzarik ez duten alderdi politikoekin foru erkidegoari ez beste inori eragiten dioten gaiez sinatutako alde biko akordioak direla-eta?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

## Galdera, langile autonomoek dauzkaten diru-sarrerak direla-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak egiten duen irakurketari buruzkoa.

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, langile autonomoek dauzkaten diru-sarrerak direla-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak egiten duen irakurketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakaria ohartzen al da maiatzaren 13ko 17/2020 Foru Aginduaren arabera langile autonomoek dauzkaten diru-sarrerak direla-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak egiten duen irakurketak praktikan eragotzi egiten duela kolektibo horrentzat onetsi ziren laguntzen helburua betetzea?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## Galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Berriaren erreformaren aurka aurkeztutako errekurtsoa dela-eta Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa.

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Berriaren erreformaren aurka aurkeztutako errekurtsoa dela-eta Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure gobernuak zer zuzemen egin du (prozeduran nahitaez juridikoki azaltzeaz gain), Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Berriaren erreformaren aurka jarritako errekurtsoa dela-eta?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

---

## Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ekarriko duen aurrezkiari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ekarriko duen aurrezkiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak urtero zenbat diru uste du aurreztuko duela bizitzeko gutxieneko diru-sarrera abian jartzen denean? Zertarako erabiliko du aurreztutako diru hori?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen murrizketa dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten dituen proposamenei buruzkoa.

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen murrizketa dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten dituen proposamenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil Garcíak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren ekainaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer proposatzen du Europar Batasunaren 2021etik 2027ra bitarteko aurrekontuan Nekazaritza Politika Erkideari dagokionez aurreikusten den murrizketa dela-eta?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

---

## Galdera, jakiteko ea zertan diren Hitzarmena Negoziatzeko Batzordean izandako elkarrizketak, Sánchez lehendakariak iragarritakoaren arabera itzuli beharko ez den funtsaren eta, halaber, Nafarroak zorra jaulkitzearen inguruan.

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan diren Hitzarmena Negoziatzeko Batzordean izandako elkarrizketak, Sánchez lehendakariak iragarritakoaren arabera itzuli beharko ez den funtsaren eta, halaber, Nafarroak zorra jaulkitzearen inguruan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ekainaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira Hitzarmena Negoziatzeko Batzordean izandako elkarrizketak, Sánchez lehendakariak iragarritakoaren arabera itzuli beharko ez den funtsaren eta, halaber, Nafarroak zorra jaulkitzearen inguruan?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

---

## Galdera, “Biodibertsitateari buruzko 2030erako Estrategiari” eta “Baserritik Mahaira Estrategiari” buruzkoa.

*UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako galdera, “Biodibertsitateari buruzko 2030erako Estrategiari” eta “Baserritik Mahaira Estrategiari” buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ekainaren 11ko Osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Europako Batzordeak “Biodibertsitateari buruzko 2030erako Estrategia” eta “Baserritik Mahaira Estrategia” aurkeztu zituen aurreko astean. Estrategia horiek, berez garrantzitsuak badira ere, bereziki garrantzitsu bihurtu dira COVID-19ak eragindako krisi egoera honetan.

Hori dela-eta, honako hau galdetu nahi diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari: Zer balorazio egiten duzu bi estrategia horiei buruz eta noiz aurreikusten duzu aplikatuko direla foru erkidegoan?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

---

## Galdera, alarma egoeran eta PFEZaren aitorpenaren kanpainan zehar finantza-erakundeek Nafarroan izandako jokabideari buruzkoa.

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, alarma egoeran eta PFEZaren aitorpenaren kanpainan zehar finantza-erakundeek Nafarroan izandako jokabideari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Finantza-entitateek alarma egoeran zehar eta PFEZaren aitorpena egiteko kanpainan zehar izandako jarduerari dagokionez,

• Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia finantza-erakundeek Nafarroan izandako jokabideari buruz?

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## Galdera, jakiteko ea zer esparrutan pilatzen diren nagusiki gure erkidegoan arrazakeria dela-eta jasotako salaketak.

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea zer esparrutan pilatzen diren nagusiki gure erkidegoan arrazakeria dela-eta jasotako salaketak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko eledun Mikel Buil García jaunak Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzenduriko gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, ekainaren 11ko Osoko Bilkurarako.

AEBetako polizia batek George Floyd erail izanak eragindako inpaktuak arrazakeria instituzionalaren aurkako inoizko mobilizazio handienetako bat piztu du herrialde hartan. Arrazakeriak gizarte guztiak zeharkatzen ditu, baita gurea ere; izan ere, ezberdintasun etnikoak estratifikazio sozialeko eta aukera-desberdinkeriako elementu berezi bat izan dira eta dira Nafarroan. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoarekiko lankidetza berritu zuen; bulego hori zerbitzu publiko bat da, SOS Arrazakeriarekin hitzartua, egoera xenofobo eta arrazistak pairatu dituzten biktimei laguntza integrala eta aholkua bermatzen diena.

Zer esparrutan pilatzen dira nagusiki gure erkidegoan Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoaren bidez arrazakeria dela-eta jasotako salaketak?

Iruñean, 2020ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## Galdera, Nafarroako industria babesteko eta sendotzeko Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa.

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako industria babesteko eta sendotzeko Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernua zer jarduketa egiten ari da Nafarroako industria oro har –eta zehazkiago, automozioaren sektorea– babesteko eta sendotzeko?

Iruñean, 2020ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

## Galdera, jakiteko ea zer irizpide darabilen Nafarroako Gobernuak autonomia erkidegoentzat 16.000 milioi euroko funtsen esleipenari dagokionez.

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea zer irizpide darabilen Nafarroako Gobernuak autonomia erkidegoentzat 16.000 milioi euroko funtsen esleipenari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer irizpide darabil autonomia erkidegoentzat 16.000 milioi euroko funtsen esleipenari dagokionez?

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

## Galdera, Nafarroa hirugarren fasean sartzeari buruzkoa.

*UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroa hirugarren fasean sartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den ekainaren 11ko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteburuan, Espainiako Gobernuak hirugarren fasea ezarri du eskalaren zenbait puntutan, eta Nafarroa hor sartu da. Halere, lurraldeen artean mugitzeari dagokionez, fasez aldatzeak ez du aurrabide handirik ekarri.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak nola baloratzen du egoera, eta, zehazki, mugaldeko eremuen eta beste erkidego batzuekin muga egiten duten herrien egoera?

Iruñean, 2020ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

---

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

**Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 5. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2020ko otsailaren 11ko ebazpenaz onetsi zen–, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta apirilaren 7ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta horren aldaketa maiatzaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, erreklamazioak aurkezteko epea iraganik eta horiek ebatzita, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratzea.

Beraz, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DU:

**Lehena.** Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

*a) Onartuak:*

Arana Marquina, Cristina

Ayesa Gorraiz, Irene

Esquiroz Villanueva, María Gloria

Foronda Ortiz, Inmaculada

García Fuentes, Mª Dolores

Hernández Asirón, Mercedes

Hernández Pérez, Ana Pilar

Hualde Aramburu, Mª José

Lorente Gracia, Mª Isabel

Sánchez Borrachero, Mª José

*b) Baztertuak:*

Alzueta Goyeneche, Miriam Heidi (1)

Campión Larumbe, Marta (1)

Carrique Iribarne, Mª Dolores (2)

García Andueza, Aintzane (2)

*Baztertzeko arrazoiak:*

*(1) Deialdiko 2.1 a) oinarrian ezarritako baldintza ez egiaztatzeagatik.*

*(2) Nafarroako Parlamentuko edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko funtzionario ez izateagatik.*

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950